

PROBA OROKORRA

2010eko PROBA

IRUZKINA

PROBA

ERANTZUNAK





Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Gripe berriaren aurkako txertoa 4 edo 6 hilabeteren buruan egongo da prest

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) iragarri du "aste gutxiren buruan" hainbat industria ohiko gripearen aurkako bakunak ekoizteari utzi eta gripe berriaren aurkakoak egiten hasiko direla. Nolanahi ere, lehen dosiak lantegietatik ateratzeko "4 edo 6 hilabete" pasatu beharko direla zehaztu du

Prentsaurrekoan, Marie-Paule Kieny Txertoak Ikertzeko Elkartearen zuzendariak baieztatu du ohiko txertoa ez dela eragingarria A gripearen birus berriaren aurka. Dena dela, farmazia industriak "esperientzia handia" duela gogorarazi du, eta beraz, lasai agertu da. Adituaren ustez, ez da pandemia ofizialki deklaratu arte itxaron behar AH1N1 birusa zabaltzea galarazten duen txertoa ekoizten hasteko.

OMEk 'txerri gripea' izena ez erabiltzea erabaki zuen atzo, eta orain AH1N1 izena erabiltzen ari da birus berria aipatzeko.

13 kasu baieztatuta Espainiako Estatuan

Bestalde, Espainiako Gobernuko Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak 108ra jaitsi ditu Estatuan dauden balizko gripe kasuak, baina baieztatutakoak 13 dira oraindik. Azken balantzean, 116 ziren balizko kasuak. Hala ere, medikuek nabarmendu dute balizko kasuen %95 faltsuak direla.

Baieztatuta dauden 13 kasu horietatik, berriz, sei Katalunian daude, bi Gaztela-Mantxan eta bana Euskadin, Valentzian eta Murtzian. Dena dela, ez daude larri Katalunian jazotako kasu bat izan ezik. Gainerakoak Mexikotik etorri berri diren pertsonak dira.

Frantziak bere lehenengo bi kasuak atzeman ditu

Roselyne Bachelot Frantziako Osasun ministroak baieztatu du bi kasu atzeman dituztela Parisko eskualdean. Herrialdeko bi lehenak dira. Biak Mexikotik etorri berri dira; beraz, ez dira Frantzian kutsatu. Bacheloten arabera, beste balizko kasu bat atzeman dute, eta emaitza positiboa emango du seguru aski.

Osasunaren Mundu Erakundeak ez du gomendatu herrialdeen mugak ixtea, baina gaixo dauden pertsonen haien bidaiak atzeratzea komeni dela adierazi du.



Testua oinarri hartu eta idatzi 20 - 25 lerroko testu bat ondoan aurkezten diren bi gai hauetako batez: (10 puntu)

- a. Idatzi artikulua bat zure auzotegiko aldizkarirako. Bertan azaldu, A gripea dela-eta dagoen informazioa eta auzoko lokal publikoetan hartu beharreko neurriak. Saiatu ondo bereizten seguruak diren datuak, zurrumurru direnak, zalantzazkoak eta faltsuak. Beharrezko denean zehaztu nork esaten duen zerbait.
- b. Idatzi gutun bat zure enpresaren zuzendaritzari. Gutunean azaldu A gripea dela-eta dituzun zalantzak eta kezkek, eta eskatu ondorioak minimizatzeko neurriren bat.

Antolatu testua honako elementuekin:

- Sarrera pasarte.
- Zure ideiak garatzeko bi pasarte.
- Azken pasarte konklusioetarako.

- Ez egin testuaren laburpena.
- Adierazi zure iritzi pertsonala.

Gogora ezazu baloratuko direla honako elementuak:

- ideien arteko koherentzia (ez daitezela kontraesankorrak izan, ez eta sakabanatuegiak ere);
- esaldien eta pasartearen arteko kohesioa (jarri arreta puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari eta lokailuei);
- eta zuzentasun ortografiko eta gramatikala.

Astirik baduzu, zirriborroa egin dezakezu ideiak antolatzeko. Idazkia bukatzean errebisatu entregatu baino lehen. Zirriborroa azterketarekin batera entregatu dezakezu.



**PROBAREN ERANTZUNAK
IRUZKINA (2010 maiatza)**

Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Gripe berriaren aurkako txertoa 4 edo 6 hilabeteren buruan egongo da prest

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) iragarri du "aste gutxiren buruan" hainbat industria ohiko gripearen aurkako bakunak ekoizteari utzi eta gripe berriaren aurkakoak egiten hasiko direla. Nolanahi ere, lehen dosiak lantegietatik ateratzeko "4 edo 6 hilabete" pasatu beharko direla zehaztu du.

Prentsaurrekoan, Marie-Paule Kieny Txertoak Ikertzeko Elkartearen zuzendariak baieztatu du ohiko txertoa ez dela eragingarria A gripearen birus berriaren aurka. Dena dela, farmazia industriak "esperientzia handia" duela gogorarazi du, eta beraz, lasai agertu da. Adituaren ustez, ez da pandemia ofizialki deklaratu arte itxaron behar AH1N1 birusa zabaltzea galarazten duen txertoa ekoizten hasteko.

OMEk 'txerri gripea' izena ez erabiltzea erabaki zuen atzo, eta orain AH1N1 izena erabiltzen ari da birus berria aipatzeko.

13 kasu baieztatuta Espainiako Estatuan

Bestalde, Espainiako Gobernuko Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak 108ra jaitsi ditu Estatuan dauden balizko gripe kasuak, baina baieztatutakoak 13 dira oraindik. Azken balantzean, 116 ziren balizko kasuak. Hala ere, medikuek nabarmendu dute balizko kasuen %95 faltsuak direla.

Baieztatuta dauden 13 kasu horietatik, berriz, sei Katalunian daude, bi Gaztela-Mantxan eta bana Euskadin, Valentzian eta Murtzian. Dena dela, ez daude larri Katalunian jazotako kasu bat izan ezik. Gainerakoak Mexikotik etorri berri diren pertsonak dira.

Frantziak bere lehenengo bi kasuak atzeman ditu

Roselyne Bachelot Frantziako Osasun ministroak baieztatu du bi kasu atzeman dituztela Parisko eskualdean. Herrialdeko bi lehenak dira. Biak Mexikotik etorri berri dira; beraz, ez dira Frantzian kutsatu. Bacheloten arabera, beste balizko kasu bat atzeman dute, eta emaitza positiboa emango du seguru aski.



Osasunaren Mundu Erakundeak ez du gomendatu herrialdeen mugak ixtea, baina gaixo dauden pertsonen haien bidaiak atzeratzea komeni dela adierazi du.

Testua oinarri hartu eta idatzi 20 - 25 lerroko testu bat ondoan aurkezten diren bi gai hauetako batez: (10 puntu)

- a. Idatzi artikulu bat zure auzotegiko aldizkarirako. Bertan azaldu, A gripea dela eta, dagoen informazioa eta auzoko lokal publikoetan hartu beharreko neurriak. Saiatu ondo bereizten seguruak diren datuak, zurrumurru direnak, zalantzazkoak eta faltsuak. Beharrezko denean zehaztu nork esaten duen zerbait.
- b. Idatzi gutun bat zure enpresaren zuzendaritzari. Gutunean azaldu A gripea dela-eta dituzun zalantzak eta kezkak, eta eskatu ondorioak minimizatzeko neurriren bat.

Antolatu testua honako elementuekin:

- Sarrera pasarte.
- Zure ideiak garatzeko bi pasarte.
- Azken pasarte konklusioetarako.

- Ez egin testuaren laburpena.
- Adierazi zure iritzi pertsonala.

Gogora ezazu baloratuko direla honako elementuak:

- ideien arteko koherentzia (ez daitezela kontraesankorrak izan, ez eta sakabanatuegiak ere);
- esaldien eta pasartearen arteko kohesioa (jarri arreta puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari eta lokailuei);
- eta zuzentasun ortografiko eta gramatikala.

Astirik baduzu, zirriborroa egin dezakezu ideiak antolatzeko. Idazkia bukatzean errebisatu entregatu baino lehen. Zirriborroa azterketarekin batera entrega dezakezu.



Erantzuna:

Testu idatziaren zuzenketarako irizpideak
Honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Testuaren koherentzia: baloratuko da testua ulergarria den eta erabiltzen den testu-motarako informazio pertinetea duen, oinarritzko ideiak argi dauden, gai orokor batek testuari batasuna ematen dion (edo erlazorik gabeko gaien gehiegikeriak testua zapuzten duen). Kontuan hartuko da, halaber, erabilitako lexikoa ustezko jasotzaileari ondo egokitzen zaion. Gainera, kontuan hartu beharko litzateke idatzitako testua aukeratutako testu-motaren egiturara ondo moldatzen den.
- Testuaren kohesioa: baloratuko da ea ondo erabiltzen diren honakoak: puntuazioa, lokailuak, ideien arteko loturak, esaldiaren barneko egituraren ordena eta izenordainak eta anaforak.
- Testuaren zuzentasuna: testuaren zuzentasun ortografiko eta sintaktikoa.

Deskripzio sintetikoaren arabera puntuaketa:

10-7 puntu	<p>Testuak beharrezko informazioa du eta ondo antolatuta dago pasarte desberdinetan.</p> <p>Argudio desberdinak eta ondo garatuak erabiltzen ditu bere iritzia defendatzeko.</p> <p>Aukeratutako edukia nabarmena da gaiaren garapenerako.</p> <p>Testuak erregistro egokia du.</p> <p>Puntuazio-zeinuak ondo eta ondo erabilia daude, baita lokailuak eta baliabide anaforikoak ere.</p> <p>Ez dago ortografia-huts gehiegi (8 baino gutxiago), ez eta hutsegite gramatikalik ere.</p>
6-4 puntu	<p>Testuak errakuntzak ditu bai edukian bai forman.</p> <p>Testuaren ulermena eragozten ez duten gabeziak daude.</p> <p>Argudioak errepikatzen dira edo ez daude ondo garatuta.</p> <p>Pasarteak ez daude ondo eraikiak.</p> <p>Testuaren ulermenerako informazioa falta da. Gerta daiteke informazio hori errepikatua edo garrantzirik gabea izatea.</p> <p>10 ortografia-huts baino gehiago daude edo/eta espresio-hutsak daude, testu atalen baten ulermenean nahasgarri suerta daitezkeenak.</p>
3 puntu baino gutxiago	<p>Testuak ulermen globala eragozten duten oinarritzko gabeziak ditu.</p> <p>Koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- edo/eta egokitasun-akatsak daude.</p> <p>Agerian geratzen dira gabezi komunikatibo eta linguistiko handiak.</p>